

# **P**UBLIZITATEARI BURUZKO ORDENANTZA

## ATARIKOA

Fabrikatzaile batek egin eta saldu nahi duena erosleei ezagutarazteko; alderdi politiko batek hautesleei beren programaren berri emateko; Erakundeek hainbat gairi buruz -dirusarrerak sortzeko laguntzak, fiskal betebeharrak, lan eskaintza publikoei buruz- herritarrak jakinaren gainean edukitzeko, oinarri-oinarrizko bidea bihurtu da publizitatea.

Merkatala ez den publizitate barruan, besteak beste, kirol eta kultura mailako elkarteak, ekologistak, giza eskubideen aldekoak... sartzen dira. Era horretako elkarteek dituzten ekonomia baliabide eskasak direla eta, sarritan baliabiderik merkeenak erabili behar izaten dituzte, esate baterako, pankartak, pintadak, eta kartelak. Horren ondorioz, etxe, horma, hesi, eskaparate eta abarretako fatxadak paperez erabat estalita gelditzen dira, helburua beti ere bat delarik: herritarrei zerbaiten berri ematea. Guztiok dugun adierazpen askatasun eskubide hori gauzatu ahal izateko, beste zenbaitek dituen eskubideak erasotzen dira, hots, edozein jabe beren ondasunak errespetatu daitezkeen duen eskubidea, edo herritar orok inguru garbi eta ahalik eta txukunenean bizitzeko duen eskubidea esate baterako.

Ordenantza honen helburua, batetik, beharrezko diren kartel eta pankartak, eta bestetik, gure ingurugiroaren txukuntasun eta garbitasunaren arteko oreka lortzea da. Horretarako kartelak gehien jartzen diren tokietan taula batzuk jarriko ditu Udalak, bertan iragarle bakoitzak kartelak jartzeko aukera izan dezan.

### 1. ATALA

Partikularrek -helburua dena dela- udalerriko bide edo leku publikoetan publizitatea erabiltzea arautzen du ordenantza honek, bide edo leku publikoen erabilera publikotik sortzen diren eskubide desberdinak elkarrekin bateragarri egiteko, kontutan izanik gainera, Udala Administrazio honen zeregina dela aipatutako bideak eta lekuak egoera onean gordetzea.

### 2. ATALA

Oro har, bide edo leku publikoak, zein udal bideak erabiltzen direla esan ohi da, publizitatea erabiliz materialki bidea okupatzen denean, edo lortu nahi den publizitate helburua lortzeko udal bide edo lekuak erabiltzen direnean.

### 3. ATALA

1.- 2. atalean aipatzen den erabilera-denbora mugatua izango da. Iragartzen den eginkizunaren arabera mugatuko da denbora hori. Dena den, gehienez ere, ezingo da 10 egun baino gehiagoz erabili.



2.- Aipaturikoez gain, Udal Batzarrak beste neurri batzuk bete araz ditzake, aurreko horiek osatu edo garatzeko.

3.- Erabilera hori bukatu ondoren, ordenantza honek arautzen duen publizitatea erabili baino aurreragoko egoera berean utzi beharko dira ondasunak.

#### 4. ATALA

Publikoak diren eraikinetan ezingo da, inola era, publizitatearik ezarri.

#### Pintadei buruzkoa

#### 5. ATALA

1.- Edozein margoketa teknika bidez, harresi, horma, espaloi, kale, edo edozein egitura elementutan eskuz egiten diren inskripzioak hartuko dira, Ordenantza honen arabera, pintadatzat.

2.- Pintadak egitea debekatuta dago.

#### 6. ATALA

Udal zerbitzuek berehala ekingo diote pintadak ezabatzeari eta gastuak pintadak egin dituztenen kontura izango dira, 12 eta 13. atalean zehaztutako erantzunkizunen kaltetan gabe.

#### Kartelak eta pankarteak jartzeari buruzkoa

#### 7. ATALA

Ordenantza honen arabera honako hau ulertuko da kartel eta pankartatzat:

a) Kartelak: gorputz gutxiko paper edo beste materiale batean inprimatu edo pintatutako iragarkiak, formatoa edozein delarik ere, horma zein beste edozein lekutan ezar daitezkeenak.

b) Pankartak: tamaina handiko publizitate iragarkiak, noizean behin bide publikoan edo egitura elementuei erantsita jartzen direnak.

#### 8. ATALA

Udalerriko edozein egitura-elementutan, bai eta, ondasun higiezinetan, harresi, hesihorma, zubi, horma, hesi, espaloi, eta antzerako hiri-altzarietan, kartelak eta itsaskinak ezartzea eta itsastea debekatuta dago.

Udalak horretarako bereziki ezarriko dituen tokietan (tauletan) jarri ahal izango dira bakarrik kartelak.



Hauteskunde garaian, kartel eta itsaskinak jartzeari buruzko erabakiak unean-unean hartuko dira.

## 9. ATALA

Pankartak edozein urtesasoitan ezarri ahal izango dira, beti ere Ordenantza honetako 10. atalean adierazitakoa betetzen badute.

## 10. ATALA

1.- Honako hauek dira pankartek bete behar izango dituzten baldintzak:

a) Pankartaren azalera, haizearen eragina gutxitzeko behar beste zulo izango ditu. Dena den, zulatutako azalera pankartaren % 15 izango da gutxienez.

b) Pankarta ezartzeko gutxienerako altuera, beherago dagoen pankartaren zatitik neurtuta, bost metrotakoa izango da, pankartak kalea gurutzatzen duenean; eta hiru metrotakoa, espaloi, pasealeku eta oinezkoak dabilzan beste toki batzutan zintzilik daudenean.

2.- Farola edo bide publikoko beste egitura elementu batzuei lotutako pankartak, farola edo elementu horretako puntu bakar batean lotuko dira.

3.- Debehatuta dago zuhaitz edo antzerako elementuetatik pankartak eskegitzea.

## 11. ATALA

Pankartak eta kartelak, erabiltzeko baimena bukatu eta hurrengo egunean kendu beharko dituzte doakienek, eta ez badute egiten, udal zerbitzuek ekingo diote lan horri; gastuak ezarri dituztenen esku geldituko dira.

## Arau hausteei buruzkoa

## 12. ATALA

3. ataleko 3. zenbakian adierazitakoaren kaltetan gabe, ez bada aurreko atalean adierazitakoa betetzen, zigortu egingo da indarrengo Administrazio Prozedurako Legeko VI. idazpuruko, 2. atalburuan adierazitakoari jarraituz, eta kartelak berehala kenduko dira.

## 13. ATALA

Arau-haustearen erantzule burutzen dutenak izango dira, eta besterik ezean arau-haustea bultzatzen dutenak.



